

ERMUKO ALKATE JAUNARENTZAT

Paul Yarza Agirregomezkorta, EH Bildu taldeko bozeramaileak mozio hau aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

ZERGATIA

Nazioarteko xedapenekin lotuta, 1978ko Konstituzioaren 47. artikulua etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea aitortzen die herritar guztiei, eta botere publikoei eskubide hori gauzatzeko beharrezkoak diren baldintzak sustatzeko eta arau egokiak ezartzeko exijitzen eta agintzen die.

Konstituzio-agindu horrek interes orokorrarekin lotuta jasotzen du etxebizitzaren eta lurzoruaren erabilera, espekulazioa eragozteko, eta, era berean, hirigintza-ekintzak sortzen dituen gainbalioetan komunitateak duen partaidetzarekin lotzen du.

Eskubide bat aitortzen da, beraz, eta eskubide horren hartzaileen artean daude, halaber, administrazio-auzotasuna duten atzeritar egoiliarak, Konstituzio Auzitegiak aspalditik adierazi izan duen bezala (107/1984 KAE, 3. OJ).

Duela gutxi, 2024ko hauteskunde autonomikoetan parte hartu duten alderdi politiko gehienek adierazi dute beharrezkoa dela alokairuko etxebizitzaren eta zuzkidura-apartamentuen parke publikoa handitzea, nahiz eta azken horiek ez duten betetzen etxebizitza egonkorren izaera, eta, beraz, ez dira formula baliozkoa etxebizitza-eskubide subjektiboa bermatzeko.

Epe laburrean etxebizitza babestuaren beharrianak betetzea ezinezkoa dela jakinik, ordezkariak aukera bat ezarri da: etxebizitza-eskubide subjektiboaren eskakizunari prestazio ekonomiko baten bidez erantzutea, baina frogatu da formula horrek alokairuko merkatu librean prezioak igotzen laguntzen duela, eta ez diela eskubide hori bermatzen ez DSBE jasotzen duten pertsonen, ez eta beren lan-errenten %40a gutxienez alokairua ordaintzeko erabil dezaketela justifikatu ezin dutenei ere, eta pertsona horiek bizitegi-bazterkeriako egoeran geratzen direla.

Zorionez, aurrerapausoak eman dira herritarrei etxebizitza egonkor eta duina izateko eskubidea aitortzeari dagokionez. Horren erakusgarri dira Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legea eta Etxebizitzarako eskubide subjektiboa arautzen duen maiatzaren 24ko 12/2023 Legea.

Lege-arau horrek lehentasuna ematen dio alokairuari, arazoari erantzuteko modurik egoki eta bidezkoena bezala.

Legeak aukera ematen du eraikuntza-unitate berean alokairurako etxebizitzak eta jabetzako etxebizitzak batera egon daitezen eta nahasita diru-sarrerara desberdineko bizikidetza-unitateak.

Gure udalerrian bizitegi-lurzorua ondasun urria dela kontuan hartuta, hiri-eredu trinkoa sustatuko duten mekanismoen alde egiten da, lurzoruaren okupazioa arrazionalagoa izan dadin.

Lege horrek toki- eta lurralde-administrazioei esleitzen dizkie etxebizitzaren eta ondare eraikigarriaren arloko eskumenak.

Eraikuntzarako lurzoru egokirik ez dagoenez eta kudeaketa- eta prestakuntza-prozesuaren ondoren lurzoruak hartzen duen balioa dela-eta, optimizatu egin behar da lehendik dauden eraikinekin egin daitekeena (etxebizitza erabilia erosi eta birgaitu, alokairu sozialerako).

Lege horrek etxebizitza-arloan erabilgarri dauden baliabideak alokairuko etxebizitzak sustatzera nagusiki bideratzea aurreikusten du, bai eta Lurzoru-ondare Publikoa sortzera ere, etxebizitza-eskubidea betetze aldera ezinbesteko lege-tresna legez.

Gainera, legeak eta Etxebizitzaren aldeko Itun Sozialak diotenez, etxebizitzak eta lurzoruaren erabilerak aldaketa sozialak izan behar dituzte zaintza-lanak errazteko beharrari begira (etxeko eremuan eta ingurunean batez ere egiten diren lanak) kontuan hartuta.

Eta horrez gain, ondokoa kontutan hartuta:

Etxebizitza-arazo estruktural bat dugula, gure udalerriko desberdintasunen zati handi baten arrazoi dena,

Soldatekin alderatuta, Etxebizitzaren kostua modu esponentzialean igo dela eta

Bizitoki-larrialdiko egoera honek pertsona ahulenei eragiten diela batez ere, hau da, gazteei, guraso bakarreko familiei eta migratzaileei honakoa da gure

PROPOSAMENA

Ermuko Udalak ez du behar beste informaziorik jenderik gabeko etxebizitzak merkaturatzeko sustapen-politika eraginkorrak ezartzeko.

Ermuko Udalak jakin behar du zergatik etxebizitzak jabeek ez dituzten jenderik gabeko etxebizitzak merkaturatzen, ez bakarrik alokairu bidez, bai eta gozamina bezalako beste modu batzuen bidez, eta, hala badagokio, zergatik ez diren etxebizitza horiek besterentzen eskuratzailerak bertan bizi ahal izateko.

Informazio hori beharrezkoa da jenderik gabeko etxebizitzak okupatzeko udal-politikak diseinatzeko, hartu beharreko formula edozein dela ere: alokairua sustatzea, alokairuko etxebizitza publikoen ekipamendua sortzea, birgaitze-obra egitearen truke etxebizitzak erabiltzeko uztea, hutsik dauden etxebizitzak erosteko dirulaguntzak ematea, etab.

Etxebizitza duina eta egokia izateko eskubidea aitortzen duen 1978ko Espainiako Konstituzioaren 47. artikulua betez, eta 3/2015 Legea eta 12/2023 Legea bezalako azken araudiekin bat etorriz, etxebizitzaren udal plan bat garatzeko lehen urrats moduan, honako hau egitea proposatzen dugu, beti ere genero-ikuspegia kontutan hartuta:

- Jenderik gabeko etxebizitzaren eta horien ezaugarrien diagnostikoa.
- Ermuko biztanleen etxebizitza-premia eta etxebizitza-parkeak eskaintzen dituen aukerak jakitea.
- Europako erreferentziazko neurri berritzaileak aztertzea, gero merkaturatzeko hartu beharko diren udal-jarduketara illoak definitze aldera.